

## **ADIERAZPEN PLASTIKOA**

Adierazpen plastikoaren bidez haurrak trebeziak, ahalmenak eta baloreak garatzen ditu; bere barneko mundua, ametsak, fantasiak eta irudimena irudikatzeaz gain, gogamen-egitura berriak ikertzen ditu. Beraz, adierazpen plastikoan sormena bultzatzen duten trebeziak garatu eta landu behar dira: originaltasuna, arazoekiko sentsibiltatea, analisi eta sintesirako ahalmena, komunikatzeko eta adierazteko gaitasuna, asmamena, gauza eta ideien sormena. Familiak haurrari bere burua adierazteko aukera asko eman behar dizkio, eta adorea ere bai. Horretarako, familia adierazpen plastikoaren garrantziaz jabetu behar da; haurren grafismoaren eboluzio-aldiak ulertu behar ditu; haurrari ezin dio bere adin kronologikoarekin bat datorren etapa batean egotea eskatu (eragin soziala kontuan hartu behar da, haur bakoitzaren izaeraz gain; hau da, bere bilakaera errespetatu behar da); haurra orientatu egin behar du, ez zuzendu; adin bakoitzerako egokiak diren teknikak eta materialak ezagutu behar ditu; eta batez ere, prozesu horretan adorea eman behar dio, bere kabuz gauzak sor ditzan.

Hainbat teknika erabiltzea komeni da; izan ere, tekniken bidez mugimendu-gaitasunaren garapena ez ezik, adimenarena ere bultzatuko dugu.

Lowenfeld. "Desarrollo de la capacidad creadora". Edit. Kapelusz. (1961)

Circular N° 03. "Expresión gráfico-plástica, para su análisis y evaluación. Bs. As. (1980)